Herri Aldizkaria

Otamotz

1999ko ekaina 48. alea

-Udal hauteskundeen inguruko mahaingurua

-Oskorri eta San Juanak iparragirre omenduz

-Susana Fraile eta Urola eskubaloi txapeldunak

99-6-13

EUSKALTZALEEN ZINTZO MINTZO ELKARTEA

Zein sartuko ote da?

eusko alkartasuna

EAJ PNV

Zurekin bateginik.

Urretxun zure BOTOA EA/EAJ ri

Pello Gonzalez Argomaniz

Etorkizuna guztion esku dago.
Horregatik orain inoiz baino
gehiago, indarrak bildu
behar ditugu.
Urretxun eta Zumarragan ere.
Eta ilusio handiz heldu behar diogu
erronka honi.
Zurekin bateginik

Zumarragan zure BOTOA EA/EAJ ri

Aitor Gabilondo Ruiz

70. hamarkadan Antion Santa Isabel egunean ateratako argazkia. Dirudienez bertako paisaia nahikoa ezaguna zutela eta, atzean mural bat jartzea erabaki zuten. A zer nolako zumarragatarrak! Argazkian: Josetxo Garmendia, José Martín Azkue, Adolfo Francés, Fernando Francés, Lourdes Agirrezabal eta Jesús Mari Larrañaga.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 Tirada:2.000 ale. **Edizio digitala:** http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO
Levi's · Libertó · Pepe Jeans London · Diesel
SALTOKIA DOSS
Bidezar, 13 ZUMARRAGA

HAR-GOR
Ileapaindegi mistoa
Nekolalde 3, URRETXU
☎ 943 72 44 42
HARGOR
Artisautza Arropak Opariak
Nekolalde, 5 Urretxu
☎ 943 72 56 58

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

Mutua General de Seguros
Jose Luis Balenziaga
Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

KABIA JATETXEA
Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA

Igerilekuetako zerbitzuak

Jon Mikel Irigoras eta Jesus Mª Urbegain / Urretxun H.B.ko zinegotziak

Urretxuko udalak duela gutxi herriko igerilekuetako zerbitzuak esleitzeko era onartu du. Aurreko urteetan adjudikatzen zen zerbitzu bakarra taberna zen, aurten, ordea, kontratistak taberna kudeatzeaz gain pertsonen sorospena, sarreren kontrola eta instalazio eta lokalen garbiketa kudeatu beharko du.

Zerbitzu hau kudeatzeko era, gure ustetan, herriarena den instalazioa aldi baterako pribatizatzea besterik ez da. Eta ez dugu ulertzen udalak halako zerbitzua baldintza sozial egokietan emateko gestioari uko nola egin dion, eta bere gain ez duen hartzen piszinan izango diren pertsonen segurtasuna, den-dena esku pribatuetan utziz eta zerbitzu bat izan beharko lukeena norbaiten eta norbaitentzat negozioa izateko erabakia hartuz.

Azken urte hauetan piszina gestionatzeko unea heltzen den bakoitzean hainbat gehiegikeria eta burla moral egin dira. Gogoratu besterik ez dugu nola behin sarreren salmenta aurrera eramateko lanpostuarentzat F.P. 1 perfila eskatu zen, lan

"Gure iritziz Udaletxearen lana ere bada piszinako zerbitzuaz eta hor sor daitezkeen lanpostuez arduratzea"

horretarako inongo aukerarik eman gabe Ikasketen Agiria zuten herritarrei. Edo, ondorengo beste hau, igerilekuko garbiketarako langilea izan ahal izateko baldintza emakumea izatea eskatu, garai bateko irizpideak berrindartuz, non, esaten zen, emakumeari erratza nola hartu irakastea inportantea zela bere lana hori zelako, etxeko garbitasunaz arduratzea.

Gure ustetan udaletxean dauden arduradun politikoak hala jokatzen dutenean udalerriaren alde eta herritarron onerako ez dute egoki lan egiten. Udala herriarena den zerbitzu bat gestionatzeko gai ez bada, zertarako dago?

Udala herriarentzat iharduten duen instituzioa dela ulertzen dugu, eta ez, gerente eta lagunez osatutako taldea izango balitz bezala, zerbitzuak eskaini eta gestionatzeari uko egiten dabilen egitura. Gure iritziz Udalaren lana ere bada piszinako zerbitzuaz eta hor sor daitezkeen lanpostuez arduratzea, eta ez egin dena egitea, zerbitzua esleitzea edozein enpresarentzat diru iturria sortuz.

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA

Azkenean heldu da ikasturteko azken hilabetea!! Nahiz eta ikasi beharra dagoen udako oporrak ere hementxe ditugu eta berarekin ikasketak hilabete batzuetan ahazteko aukera ere bai.

Hilabete honetako Txikimotzen, Sasieta Mankomunitateak saritutako La Salle eskolako neska-mutilekin hitz egin dugu eta Gainzuri ikastetxeko ikasturte amaierako jaieko argazkiak eta ikastolako haurrek Ingurugiro Astean egindako erakusketako-ak bildu ditugu.

ATLETISMOA 99-5-8 BANAKAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAK 2. IHARDUNALDIA

150 m.	Jon Plazaola	Ikastola	19.3	3. Brontzezko domina
	Aimar Alberdi	Ikastola	20.0	8.
Diska jaurtiketa	Ariadna Aristegi	Ikastola	18.78	7.
	Alain Beltza	Ikastola	20.66	5.
	David Gómez	La Salle	19.32	7.
Luzera saltua	Paloma Quintana	Ikastola	4.33	6.
	Ainhoa Urretabizkaia	Ikastola	4.50	2. Zilarrezko domina
Jabalina jaurtiketa	Juanjo Usabiaga	Ikastola	22.90	5.
	Daniel Pérez	Iparragirre	22.30	6.
1.000 m.	Unai Pérez	Ikastola	3.30	14.
	Peio Alberdi	Ikastola	3.13	8.
	Ana Azkona	Ikastola	3.41	6.
4X80 m.	Ikastolako mutilak			5.

ATLETISMOA 99-5-15 ESKOLEN ARTEKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAK

HAZTEGI MUTILAK	1.
IKASTOLA MUTILAK	5.
LA SALLE MUTILAK	7.
IKASTOLA NESKAK	6.

Gainzuri Ikastetxeko ikasturte amaierako festa

Gainzuri ikastetxeko ikasle eta irakasleak, urtero bezala, Santa Barbarara joan ziren ikasturtearen amaiera ospatzera. Maiatzaren 28an bildu ziren bertan eta eguraldi paregabea izan zutenez, antolatutako ekintza guztiak burutzeko aukera izan zuten.

Goizean jolas ezberdinetan parte hartu ondoren; bazkaldu eta arratsaldean "Karaokea" ere izan zuten. Gustura ibiltzeko aukera paregabea izan zuten beraz. Ondo pasa oporrak!

Sasieta • Mankomunitateak La Salleko ikasle talde baten lana saritu du

Azkeneko urteetan bezala, Sasieta mankomunitateak birziklatutako materialez egindako eskulanen lehiaketa antolatu du aurten ere eskualdeko ikasleentzat. La Salle ikastetxean D.B.H.ko lehen maila ikasten ari diren ikasleek bertan parte hartzea erabaki zuten. Hiruko taldeetan banatu eta lan ezberdinak aurkeztu zituzten lehiaketara. Vanesa Pérez, Mikel Alonso eta Mireia Garcíak robot formako itsulapiko bat egin eta lehen saria irabaztea lortu dute.

Horretarako zaborretara botatzeko zeuden materialak erabili dituzte eta lan eskolako tailerrean egin dute eskola ordutegitik kanpo. Lehenengo robota planu batean marraztu zuten eta ondoren materiala bildu zuten: tetra-brikak, petit-suisse poteak, Coca-cola latak, natilla poteak... materialei beharrezko forma eman eta itsatsi ondoren, margotu egin zituzten.

Egindako lanak Sasieta Mankomunitatearen saria jaso zuen eta maiatzaren 28an Iparraldeko Bidarrai herrira joan ziren "rafting" egitera eta Donibane Garazin bazkaldu ondoren etxera bueltatu ziren. Txangoaz gain, plaka bat ere jaso zuten oroigarri gisa.

Vanesa, Mikel eta Mireiak etxean ahalik eta tresna gehien birziklatzen saiatzen direla esan digute, baina ohitura falta dela eta zaila egiten omen zaie. Zorionak eta segi zuen lana dela eta eredu izaten.

Ikastolako ikasleen birziklatutako lanen erakusketa

Maiatzean Itarte Etxean ikastolako ikasleek birziklatutako materialen bidez egin dituzten eskulanak erakusgai izan dituzte. Lan hauek haur hezkuntzako zein bigarren hezkuntzako ikasleek egin dituzte eta horretarako oso material ezberdinak erabili dituzte: kartoia, papera, eskoba zaharrak, sokak, plastikozko botilak... Lan hauek urtero egiten dituzte ikastolak antolatzen duen Ingurugiroaren Astean. Sasieta Mankomunitateak antolatzen duen lehiaketan ere aurkeztu dituzte eta baita sariak lortu ere.

Birziklatutako material ezberdinez egunerako bizitzan erabili daitezkeen tresnak egin dituzte ikasleek: maketak, futbolinak, markuak, billarrak... Bestalde, birziklatutako materialez egiten dituzten lanak ez dira soilik erakusketarako; amaren egunean edo gurasoen urtebetetze egunean egiten dizkieten opariak ere modu honetan eginak dira. Zorionak zuen lan onagatik eta segi ahalik eta zabor gutxien botatzen.

Urretxua elkartearen 25. urteurrena

Duela 25 urte inguru gure bi herriotan elkarte ugari sortu ziren eta Urretxua elkartea hatuetako bat izan zen.

Aramendi tabernan elkartzen zen lagun koadrila batek beste zenbait lagun bildu eta lokala lortu zuten. Geuk ere, garai hartan goardia zibilek bezala, elkartea zein helbururekin sortu zuten galdetu diegu eta orduko erantzuna jaso dugu: lagunekin elkartzeko leku bat izan, gustura egoteko eta herrian antolatzen ziren ekintza ezberdinetan laguntzeko helburuaz sortu zuten elkartea (beste askok bezala).

Haseran 42 bazkide ziren eta egun 75 dira eta euren esanetan ez dute bazkide kopurua igotzeko asmorik. Izan ere, asteburuetan jada ez omen dute jende gehiagorentzako lekurik.

Urretxua elkartea ez omen zen, beste elkarte batzuk ez bezala, zaletasun baten inguruan sortu (arrantza, ehiza...). Hala ere, badute ohitura berezi xamar bat: hileko bigarren larunbatean urtebetetze afari bat antolatzen dute eta bertara elkarteko bazkideak soilik joan daitezke.

Urretxua elkartekoek ekintza ugari antolatu dituzte 25. urteurrena ospatzeko eta hona hemen ekainean izango diren ekitaldien gonbidapen-programa:



Ekainak 12, larunbata:
Umeen eguna
Haurrentzako jolasak, opariak eta txokolatada izango dira elkarteetako terrazetan.
Ordua: arratsaldeko 4,30etan.

Ekainak 14, astelehena:
Iñaki de Mujika moderatzaile delarik, Jose Felix Guerrero, Oscar de Paula, Mikel Lasa eta Martin Alustizarekin kirol solasaldi interesgarria.
Non: Pagoeta Udal antzokian.
Ordua: Arratsaldeko 7,30etan.

Ekainak 16, asteazkena:
UGGASAk eskeinitako gaurkotasun handiko hitzaldia.
"Euroa eta hiritarrak"
Non: Kultur Etxean.
Ordua: Arratsaldeko 7,30etan.

Ekainak 18, ostirala:
Mokoroa eta Inaraja Jaunek gastronomiaz eta ardoaz gozaraziko digute.
Non: Urretxua elkartean.
Ordua: Arratsaldeko 7,30etan.

Ekainak 19, larunbata:
Bazkidearen eguna
Arratsaldeko 7etan: Tourseko Martin Deunaren Parrokian hildako bazkide eta senitartekoen oroimenez meza.
Ondoren trikitixaz alaituriko poteoa.
Gaueko 9etan: Elkartean afaria.

-Zer iruditzen zaizu alkateak azken lau urteotan egin duen lana?
-Gustatuko al litzaizuke alkate izatea?
-Zer egingo zenuke?



Aitor Bastarrika (Urretxu)

Alkateak lan ona egin duela uste dut, baina Iparragirre kalean egin den asfaltatzea lardaskeria hutsa izan da. Ez litzaidake alkate izatea gustatuko, baina izango banintz beste kiroldegi bat egin eta "kanpitoko" futbol zelaia konpondu edo bertan etxe berriak egingo nituzke.

Juan Luis Bidarte (Zumarraga)

PSOEkoa dela kontuan izanik, Arbulu nik uste baino alkate irekiagoa izan da. Bestalde, obrak legegintzaldi amaieran egiteko ohiturari xelebrea deritzot. Ez nuke alkate izan nahi, baina izango banintz zumarragatar sentimendua berreskuratzen saiatuko nintzateke.

Itziar Otxoa (Zumarraga)

Ez dut neure burua alkatearen lana baloratzeko gai ikusten. Dena den, kultura arloan uste dut ez dugula aurrera egin. Hala ere, azkenean zinea irekitzen bada onuragarria izango da. Alkatea izango banintz kultura arloan diru laguntza igo eta ekintza gehiago antolatuko nituzke.

Isabel Jareño (Urretxu)

Lan ona egin duela uste dut, baina obra asko hasi eta gero ez dituzte sekula bukatzen. Ez nuke alkate izan nahi, baina bere lekuan izango banintz, txakurrak kaleetatik mendira bidaliko nituzke, dena zikintzen baitute.

Jon Ander Linazasoro (Urretxu)

Oso argi ez dudan arren, ez dut uste gauzak gaizki egin dituenik. Alkate izatea gustatuko ez litzaidakeen arren, karguan egonez gero egingo nukeen lehen gauza "piruloa" kentzea izango litzateke.

Jesus Udabe (Zumarraga)

Zineko obrak atzeratzea azken lau urte hauetan egin den okerrena izan da. Nire ustez ez da kontuan izan zineak herriaren alde lor dezakeena: jendea kalera ateratzea lortzea adibidez. Alkatea izango banintz, Areizaga-Kalebarren plaza erdian dauden eskilarak kenduko nituzke.

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa fundazioa fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



ezker batua

Ezkerrak aurrera egingo du
Eutsi goiari!

Udal hauteskundeetako mahainguruak

Aurtengo udal hauteskundeak alde nabarmenak ditu Urretxu eta Zumarragan duela lau urtetakoarekin alderatuz. Alde batetik alderdi gehientsuenek jende berri ugari sartu dute euren zerrendetan eta hauetako asko gazteak dira. Bestetik, EA eta EAJ alderdiak elkarrekin aurkeztuko dira gure bi herriotan ere, euren erronka nagusia Zumarragarako berriro ere alkate abertzalea lortzea delarik.

Iaz emititzen hasi zen Urola Telebista martxan izateak ez ohiko kanpaina ekarri du. Alderdi guztiak telebistan euren alkategaiak, hautagaien zerrenda eta programa aurkezten saiatu dira eta honek hauteskunde kanpaina sekula baino indartsuagoa izatea suposatu du. Alderdiek prentsaurrekoak eskeini dituzte etengabe euren asmoak herritarrei komunikabideen bitartez erakusteko eta ondorioz herriko informazioa lantzen dugun kazetariak etengabe alde batetik bestera ibili gara. Telebistak eskeintzen duen aukeraz jabeturik, zenbait alderdik telebistarako iragarkiak ere prestatu dituzte.

Ion Aldama, Mikel Serrano, José Andrés Martín eta Joseba Garmendia urretxuko ekitaldian

UTBren sorrerak udal hauteskunde kanpaina berria ekarri du

Otamotz aldizkariko kideok, aurtengo kanpainaren berezitasunaz jabeturik, geure ekarpena egitea pentsatu genuen. Izan ere, hautagai ezberdinak telebistan asko aritu diren arren, prestaturiko programaren aurkezpena besterik ez dute egin. Telebistak eskeintzen zigun aukera ikusi eta alderdi ezberdinetako hautagaien artean mahainguru bat antolatzea pentsatu genuen. Mahainguru hauek hiru helburu nagusi izan dituzte: Alde batetik, alderdi ezberdinei datozen lau urtetarako dituzten asmoak eta egitarauak aurkezteko aukera eskeintzea. Bestetik, herriari hautagai ezberdinak era naturalean ezagutzeko parada ematea. Horretarako ekitaldi irekiak prestatu ditugu eta bertara hurbildutakoek hautagaiei euren zalantzak plazaratzeko aukera izan dute. Gainera Urola Telebistako kideak ere bertan izan dira eta mahainguruak telebistaz eskeintzen ari dira. Baina euskaltzale talde baten eskutik sortutako herri komunikabide euskalduna garen heinean, gure helburu nagusia ekitaldia euskara hutsez burutzea izan da.

Otamotzek bi herriotako informazioa lantzen duenez, mahainguru bana antolatu genuen Zumarraga eta Urretxun. Alderdi guztiak gonbidatu genituen arren, PPk ez zion gure gonbiteari erantzun eta Ezker Batuak ez zuen Zumarragan parte hartzerik izan, ez baitu euskarazko ekitaldi batean parte har dezakeen inor.

Urretxuko mahaingurua ekainaren batan izan zen Pagoeta Antzokian eta bertan EA/EAJ koalizioko Jon Aldamak, PSEko Mikel Serranok, EHko Joseba Garmendiak eta EBko José Andrés Martinek parte hartu zuten.

Zumarragako ekitaldia, berriz, ekainaren 3an izan zen Legazpi Dorretxean eta bertara PSEko Jesús Mari Mendia, EA-EAJ koalizioko Aitor Gabilondo eta EHko Mikel Elgarresta alkategaiak hurbildu ziren.

Oraindik hauteskunde kanpainaz aspertu ez bazarete, mahainguruok Urola Telebistan ikusteko aukera duzue eta guk ere ondorengo orrialdeetan bertan esandakoak bildu ditugu oso era laburrean.

Ferretería BRAVO, S.L.
INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIAK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

URRETXU

HIRIGINTZA

-EA/EAJ: "28.000M2tako parkea egiteko asmoa dugu "Campo de batalla" izenaz ezagutzen den inguruan." "Bidegorria Legazpi eta Deskarga aldera luzatu behar da." "Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz hirigune historikoan zenbait etxe berritu eta salgai zein alokairuan jarri behar ditugu." "RENFEren zenbait lursail desjabetu behar dira herriarentzat."

-PSE/EE: "Estudio bat egin behar da etorkizunean bariantea egiteko." "Babespen ofizialeko etxe gehiago lortu behar dira." "Auzoetako argiztatzea erdigunekoa bezalakoa izan behar da." "Alokairua bultzatu behar da. Horretarako etxe hutsak dituzten jabeekin akordio batetara iritsi behar da etxe hauek behar ez dituzten epean alokairuan jar ditzaten."

-EH: "Babespen ofizialeko etxebizitza gutxi egin dira." "Etxe hutsak dituztenekin akordio bat sinatzea bultzatzen dugu, alokairuan jarri ditzaten behar ez dituzten bitartean. Udalak etxe hauekin poltsa bat egin eta alokairu sozialean jarri behar ditu, 20.000 pzta ingurutan.""Lur zolu publikoaren erosketa bultzatu behar da."

-IU/EB: "Mugikortasun arazoak dituztenentzat moldatu behar dira eraikinak. Eraikuntza publikoetako sarrera moldatu behar da erraz sartzeko aukera izan dezaten. Dirulaguntzak eman behar dira eraikita daudenak moldatzeko."

ZUMARRAGA

HIRIGINTZA

-PSE/EE: "210 etxebizitza sozial berri egiteko asmoa dugu eta gestioak eginak ditugu lurra ia dohainik lortzeko. Etxe hauetako gehienak alokairuan jarriko ditugu. Bestalde, Artiz auzoan beste 50 etxebizitza sozial egiteko asmoa ere badugu."

-EA/EAJ: "150 etxe egiteko proiektua dago eta beste 200 martxan jarri nahi ditugu biztanle kopuruaren jeitsierari aurre egiteko." Esteban Orbegozo eta Etxeberri auzoetan konponketa lanak egiteko asmoa dugu eta Leturias auzotik DIA merkatal zentrura joango den espaloia egin ere bai." "Bidegorria Legazpiraino luzatu nahi dugu."

-EH: "500 etxebizitza hutsik daude eta hauek betetzea izan beharko litzateke helburua, alokairua bultzatuz." "Etxe berriak egitekotan, etxebizitza sozialak izan behar dira."

-PSE/EE: "Eskola publikoaren aldeko apustua egingo dugu. Ikastolak sare publikoan sartzeko aukera izan zuen eta ez zen aukeraz baliatu." "Institutuei ez zaie behar adina etekin ateratzen . UGLE eta institutua koordinatu behar dira."

-EA/EAJ: "D ereduaren aldeko apustua egingo dugu. Eskola publikoak gure laguntza izango du, baina baita Ikastolak ere, pribatua izan arren zerbitzu publikoa eskeintzen baitu."

-EH: "D eredua bultzatzen saiatuko gara. Eskola publikoaren alde gaude, baina ez Buesa jaunak egin zuen eskola publikoaren ereduaren alde."

HEZKUNTZA

-EA/EAJ: "Erronka nagusia erabilpenarena da. Kontzientziazioa lortu behar da eta horretarako Euskal Herriko udalerri guztietan martxan jartzen ari den normalizazio plana dago. Lehen pausua administrazioan euskara erabiltzea da. Beste plan oso garrantzitsu bat transmisio kanpaina da: guraso, irakasle, ikasleak... akordio batetara iritsi behar dira erabilpena bultzatzeko." "Alkateak ere pausuak eman ditu azken lau urteetan bere euskara hobetuz."

-PSE/EE: "Aktiboki parte hartuko dugu euskara bultzatzeko eta hautagai euskalduna aurkeztea aurrerapausu bat da. Orain udalbatzarretan ez dugu betorik izango. Izan ere, euskaraz ez dakitenekiko errespetu falta da plenuetan beraiengana euskaraz zuzentzea."

-EH: "Erabilpena da arazo nagusia. Kalean gehiengoa euskalduna da eta euskararen inguruan murgilduta dauden hainbat taldeen elkarlanaz arlo ezberdinetan erabilpena bultzatzeko plan bat egin behar da." "Legealdi honetan batzorde buruak eta alkategaia euskaldunak izatea ziurtatu behar da, ez udaletxeko langilegoa soilik." "Udalak bere iharduera euskaraz egin eta bere menpe dauden zerbitzuetan ere euskara bultzatu behar du." "Matrikulazio kanpainetan esfortzua egin behar da, baita unibertsitatean eta UGLEn ere euskalduntze planak egin." "UTBn euskararen presentzia duina ziurtatu behar da."

-IU/EB: "25-30 urte bitartean daudenetako asko euskalduntzea ez dugu lortu eta erronka gazteekin dugu. Udalak ekintza erakargarriak antolatu behar ditu gazteentzat eta hauek euskaraz izan behar dira."

-PSE/EE: "Gazteen bergizarteratzeko zentruaren alde gaude. Ez da kale borrokan aritu direnentzat bakarrik, baita delitu zibilak egin dituztenentzat ere. Zentru hau beharrezkoa da eta gazte hauentzat onuragarria."

-EA/EAJ: "Gartzelek ez dute bere helburua izan beharko litzatekeena lortzen, baina hemengo hau gartzela bat baino askoz hobea da. Gauzak ondo egin ezkero onuragarria izango da."

-EH: "Gu guztiz aurka gaude. Egia da udalean onartu zela, baina hasieran onartu zen hura 16 pertsonentzako zen eta irekia. Eraikitzen ari direnak, berriz, 40 gazteentzako lekua du eta itxia da. Argi dago gauzak ez direla gartzeletan konpontzen."

-PSE/EE: "Antion hotela jartzearen aldekoak gara, baina ingurugiro eta baseliza errespetatuz".

-EA/EAJ: "Turismoa bultzatzeko bailarako udalerrien arteko koordinazioa lortu behar dugu. Beharrezkoa da Antio eta Lenburrek harremanak izatea denon onurarako.

-EH: "Kanpotarrak bertara erakartzearen aldekoak gara, noski; baina Antioko ingurua dagoen bezala mantendu beharra dago. Ez dugu hotelik behar bertan."

RENEDO argazkiak
Jaunartzeak ● Bataioak ● Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 722292

MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

ARKUPE TABERNA
Euskadi Enparantza, 5
☎ 943 43 19
ZUMARRAGA

Doña Maximina
OIHETAKOAK OSAGARRIAK
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 943 724482

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar,5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70

URRETXU

INDUSTRIA



-EA/EAJ: "Mugitegiren 4. fasea egin behar da goikaldean Foru Aldundiak dituen lurretan. 16.000m2 gehiago izango dira." "Bailarako 4 herrion artean zolu industrial amankomuna bultzatu behar dugu." "Industria handitu eta hobetzeko Beasain-Durango eta Azkoitirako errepidea kontzea behar dugu." "Duela 5 urte eginiko plan estrategikoa amaitua dago eta berria egin beharra dago. Udaletxeak, UGGASA, UGLE, langile eta enpresariak hartu behar dugu erredaktatzearen eta aurrera eramatearen ardura."

-PSE/EE: "Mugitegi industrialdea Deskargaruntz zabaldu beharra dago. Bestalde, gu ere bailarako zolu industrial amankomuna lortzearen alde gaude."

-EH: "Analisi bat egin behar dugu: ea industriari dagozkion zerbitzuetan ondo gabiltzan edo ez." "Plan estrategikoa beharrezkoa da, baina garrantzitsuena ez da idaztea, idatzitakoa betetzea baizik. Gure industria ez dago prestatua krisi batetarako, ez dira neurriak hartu. Plan estrategikoari eduki soziala eman behar diogu. " "Enpresa kultura berria bultzatu behar dugu. Enpresa txiki asko ditugu eta euren arteko elkarlana eskasa da." "Bi gauza guztiz beharrezkoak ditugu bailarara enpresa handi bat erakartzeko: lur zoluaren politika koordinatua bailarako 4 herrien artean eta garraiobide egokiak. Zoritxarrez Beasain-Durango atzera bota dute 2.009. urterarte. Udaletxetik presio bideak bultzatu behar lirateke, Etxegarate inguruan egon den udalen mugimendutik ikasi behar genuke."

ZUMARRAGA

-PSE/EE: "Euskara bultzatzearen, eta ez inposatzearen, aldekoak gara. Elebitasunaren alde gaude."

-EA/EAJ: "Herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzearen aldekoak gara. Gure aldetik ez da inposiziorik egongo, baina alperkeria egon badago eta ahaleginak eskatuko ditugu. Bestalde, udalak azpikontratatzen dituen enpresei euskara errespetatzea eskatuko diegu."

-EH: "Erabilpena beharrezkoa da eta hau udaletxetik hasi behar da. "Euskararen udal kontseilua" bultzatuko dugu, non euskararen alde herrian lan egiten duten talde ezberdinak bilduko diren." "UTB euskalduna izatea lortu beharra dugu."

EUSKARA



INDUSTRIA

-PSE/EE: "UGGASA indartu beharra dago erakunde ezberdinak bertan sartuz." "Beasain-Durango 2.009an bukatzeko asmoa dago eta eskura ditugun baliabide guztiak erabili behar ditugu lanak berriro lehenbailehen has daitezen." "Oiaun zolu industrial bezala erabiltzearen aldekoak gara."

-EA/EAJ: "Industrialdearen 3. fasea amaitu nahi dugu eta Beasain-Durango lehenbailehen bultzatu." "Mankomunitate mailako industria gune handi baten aldekoak gara eta lur egokia zein den teknikariek esango dute Beasain-Durango errepideak jarraituko duen ibilbidearen arabera."

-EH: "Bailarako herrien artean industrialde handi bat prestatu behar dugu eta hau Oiaun izan daiteke. Errepide egokiak ere behar ditugu, noski. Baina enplegua ez da Oiaun soilik: ETTak eta "zabor kontratuak" desagertarazi behar ditugu."

Agustina ez zara ba zu izango komentuko kaskarina? Horrela bada ere segi orain arte bezain fin. Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna familiakoen partetik.

Aitortilla...! Zer moduz pasa zenuen Jaunartze eguna? Hainbeste opari jaso ondoren, ez zenien ba gonbidatuei tortilla eskeiniko? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Maribel alaitu ezazu pittin bat aurpegi hori neska! Lasai aurten guk ere urtebete gehiago izango dugu eta. **Zorionak** familiakoen eta lagunen partetik.

Ander ondo prestatzen zara gero argazkietan ateratzeko! Aldameneko batzuei erakutsi egin beharko diezu. **Zorionak** lagunen partetik.

Arantxa ez dakigu zure orrazkera, irrifarrea edo kokapena den... baina Mona Lisaren antza somatzen dizugu. Okerragoa ere izan zitekeen... **Zorionak** eta ondo pasa!

Beatriz eta Nerea, Nerea eta Beatriz, zein da zein? Primeran pasako duzue jendea nahasten! Hemendik urte batzuetara mutilekin berdina egiteko asmoa al duzue? Kontuz ibili beharko dira zuekin! **Zorionak** birritan eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Cristian, Slater abizeneko zure izenkidea dirudizu "Larrosaren izena" filmean. **Zorionak** eta ondo pasa Jaunartzean jasotako opariekin!

Horrela, horrela **Cristina!** Segi gogoz jaten eskolara joateko ordua heltzen zaizunean mutiko zirikatzaileei egurra eman ahal izateko! **Zorionak** etxeko guztien partetik.

Daniel marrazki bizidunetakoa bezain bihurria al zara? Zure irrifarrea ikusita ez gara kontrakoa esatera ausartzen... **Zorionak** eta formal ibili.

Gaizka desagertzear dagoen mamua dirudizu motel! Hurrengoan ken iezaiozu argazki kamerari lurrina argazkia atera baino lehen. **Zorionak** lagunen eta etxekoen izenean.

Goya, zuk ere margotzea atsegin duzu ala? Hala bada Arantxari deitu eta esaiozu zuk ere eretratua margotuko diozula. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze egunean.

Igone, maldan gora ibiltzea atsegin al duzu? Izena jarri zizutenean ez zuten ba hori jakingo... **Zorionak** eta ondo ibili etxekoen izenean.

Iker, Jaunartze egunean esandako guztia betetzeko prest al zaude? Horrelako mutiko bihurriak ezagututa, ez dakigu ba... Opariak bitan jaso ondoren gustura izango zara! **Zorionak!**

Iñaki, zuk ere aurten egin al duzu Jaunartzea? Batzuek ez duzue zorte makala izan, opariak bitan jasotzea ere... ala beharbada ez? **Zorionak** eta txintxo ibili.

Irati hori da hori argazkirako prestatzea! Baina irrifarre txiki bat eskeintzea ere ez litzateke batere gaizki egongo. **Zorionak** eta oso ondo pasa zure urtebetetze eguna.

Joxe eta Joxepi, a zer parea, karakola eta barea! Gustura egongo zarete behintzat gurasoek jarri zizueten izenekin. Izan ere, bikote kide bila hasi eta izen berekoa aukeratzea ere! Baietz asmatu zuen seme-alaben izenak... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Manuel Mari, aurtengoan Urolakoak ez zaizkigu oso fin ibili eta herriarteko pilota txapelketa ez dute oso fin hasi ere. Hau da hau! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Marina, neska, argazkian atera behar baduzu alaitu ezazu aurpegi hori; señorita Rottermeyer dirudizu eta! **Zorionak** etxeko guztien eta lagunen partetik.

Mertxe, neska, bitako bat: argazkia atera baino lehen argia edo flasha piztu, bestela alperrik ari gara eta. **Zorionak** etxeko guztien eta lagunen partetik.

Juani guk ere izan dugu zure urtebetetzearen berri. Zoriondu zaitugunez Aldirin agertzen garenean gonbidatu beharko gaituzu. Lasai, jakingo duzu nor-tzuk garen eta!

Oihane, hori da hori argazkian irrifartsu eta txukun ateratzea! Ea beste batzuek ikasten duten... **Zorionak** eta segi orainarte bezain irrifartsu.

Nola utzi zoriondu gabe neska irrifartsu eta polit hau? Badakigu, zure lagun Ioneri bezala, zoriontzea nahi zenuela. **Zorionak Ana** eta oso ondo pasa zure urtebetetze eguna!

Arantxa, begira iezaiozu kamerari aurrez-aurre emakumea! Katekesiko meriendan ateratako pastelak zaintzen ari al zara? Lasai ez dute ihes egingo eta! **Zorionak!**

Tamara a zer tamala horrelako neska polita azkenerako utzi izana! **Zorionak** eta oso ondo pasa zure urtebetetze egunean familiakoen eta lagunen partetik.

Jode motel! Oraingoan ere kamerak xelebrekeriren bat esaten harrapatu hau! Ezin al duk behin ere seriotasuna mantendu? **Zorionak Eneko** eta atera garagardo batzuk!

Txintxo aurpegi horrekin, nola haserretzen zarete hainbeste Beñat eta biok? **Zorionak, Miren**, etxekoen partetik!!

Lasai **Naroa**, atzenerako utzi zaitugun arren ez zaitugu ahaztu. Erderaz esaten den moduan... azkenak lehenengoak izango dira! **Zorionak** eta ondo ibili.

Liburu azoka Kalebarren-Areizaga enparantzan

Maiatzarekin batera, azken urteotan bezala, liburu azoka izan dugu Kalebarren-Areizaga enparantzan. Aurtengoa 7. edizioa izan da, jarraian ospatzen den laugarrena, eta maiatzaren 7tik 16ra izan da. Antolatzaileak Euskadiko liburu azoken batzordea, editoreen elkartea eta Bizkaia eta Gipuzkoako liburu saltzaileen elkartea izan dira, Eusko Jaurlaritzaren babesaz eta bi udalen laguntzaz. 29 partehartzaile izan dira eta aurrekontua 2 milioitakoa izan da.

Aukerako liburuez gain, liburu eta diska berriak ere saldu dira. Liburu berrien artean Unai Iturriaga, Koldo Izagirre, Pako Äristi, Manuel Vicent eta Ramon Saizarbitoriarenak izan ditugu beste batzuen artean. Bestalde, José Luis Padronen poema liburua eta "Urretxu eta Zumarragako toponimia" liburua ere azokan salgai izan dira. Diskagintzan, berriz, Oskorriren Pub Ibiltaria, Benito Lertxundi eta Idi Bihotz izan dira. Aurtengoan ere jende ugari hurbildu da azokara eta bere inguruan ekintza ezberdinak antolatu dira: Musika eskolako trikitilarien kontzertua, haur jolasak, kale antzerkia, "Antzinako Ama" txistulari taldearen saioa...

Liburu azokaren aurkezpenean Urretxu eta Zumarragako udal arduradunek bi herriotako liburutegietan azken urtean jasotako datuak ezagutzera eman zituzten. Zumarragako liburutegitik 20.000 pertsona pasa dira 98ko maiatza eta 99ko apirila bitartean. Hilabetero 7.200 mailegu egin dira eta hauetatik 3.347, %43, euskarazko liburuenak izan dira. Jende gehien azaroa eta abenduan hurbildu da eta azken 12 hilabeteetan 73 lagun bazkide egin dira.

Epe berean lehen urtea bete duen Urretxuko liburutegitik 6.500 lagun pasatu dira. Hauetatik %73 helduak izan dira eta %6 13 urtetik beherako haurrak. 1.950 mailegu egin dira, hauetatik %30 euskarazko liburuenak izan direlarik. Maileguen %60 eleberriak izan dira eta %23 haur literatura.





Antonio Pradaren azken liburuaren aurkezpena

Antonio Pradak, Zumarragako artxiberoak, maiatzean bere azken liburua aurkeztu zuen: "Aspectos de la Historia Eclesiástica de Zumarraga. Los templos de Santa María", hain zuzen ere.

Instituzioei eta partikularrei eskerrak eman ondoren, Pradak bere lanaren aurrekari historikoak aurkezteari ekin zion.

Aurkezpeneko atal garrantzitsuena parrokia Antiotik herrira jaitsi zeneko garaian gertatutakoaren azalpena izan zen. Pradak esan zuenez, garai hartan eman ziren zumarragatarren artean liskarrik nagusienak; tradizioa eta aurrerapenen aldekoen artean hain zuzen ere.

Bestalde, Jasokundeko Andra Mariaren parrokiaren eraikuntza lanez ere mintzatu zen Prada. Lanek geldialdi eta zailtasun ugari ezagutu omen zituzten eta 80 urte behar izan omen ziren bukatzeko.

Zumarragako baselizez hitz egitean honakoa esan zuen: "Antioko baseliza Zumarragako historian eraikuntza garrantzitsuena da".

Legazpi dorretxean jende ugari bildu zen liburuaren aurkezpean eta oraindik liburua eskuratu ez duenak, herriko liburudendetan salgai du.

Bailarako suhiltzaile parkearen aurkezpena

Ekainaren 3an bailarako suhiltzaile parkea izango dena aurkeztu zen Urretxuko udaletxean. Bertan Joaquín Villa eta Angel Irastorza, Foru Aldundiko arduradunak; Pello González, Urretxuko alkatea; Juan Ramón Larrañaga, Legazpiko alkatea eta Joxe Etxezarreta, Ezkioko alkateordea, izan ziren.

Parkearen proiektua esleipen lehiaketarako prest dago eta lanak uda bukaeran hastea espero da. Eraikuntza lanak 15 hilabete irautea aurrikusi da eta 2001. urterako parkea zabaltzea espero da. Eraikuntza lanetarako aurrekontua 260 milioitakoa da eta hornikuntzarako 200 milioitakoa.

Suhiltzaileen parkea mankomunitateak Foru Aldundiari utzitako lur sailean kokatuko da, Legazpirako errepidean, Olaetxe etxearen ondoan. Nahiz eta saila laua den, inguruko maldan eustorma bat egingo da. Lur sailak 10.000 m2 ditu eta bertan egingo den eraikinak 5000m2 inguru izango ditu. Ondoan ur eta petroleo biltegiak egongo dira.

Eraikinan bi zati izango ditu: batean bulegoak kokatuko dira eta bestean 12 kamioi gordetzeko lekua prestatuko da. Bestalde, aldagela, gimnasioa, logela, sukalde, egongela eta ikasgeletarako 800m2 zuzenduko dira suhiltzaileek eguneko 24 ordutako zerbitzua eskeini dezaten.

Suhiltzaile parke berriko taldea profesional zein bolondresez osatua egongo da. Profesionalak 18 izango dira eta bolondresak 20-30 inguru.

EKAINEKO AGENDA

Ekainak 11, ostirala

Eskolarteko XII. bertso-paper lehiaketaren sari banaketa. Goizeko 11:30etan Pagoeta Antzokian.

Ekainak 12, larunbata

Haurrentzako eskulanak. Goizeko 11etatik 13etara Kultur Etxean.

Ekainak 14, astelehena

Mairi emakumeen elkarteak antolaturiko "Kafea eta berriketaldi literarioak". Arratsaldeko 4etan Kultur Etxean.

Ekainak 17, osteguna

Javier Fernándezen "Ordesako xarma" diapositiba proiekzioa. Arratsaldeko 8etan Zelai Arizti ikastetxeko ekintza aretoan.

Ekainak 19, larunbata

Haurrentzako eskulanak. Goizeko 11etatik 13etara Kultur Etxean.

Ekainak 21, astelehena

Mairi emakumeen elkarteak antolaturiko "Kafea eta berriketaldi literarioak". Arratsaldeko 4etan Kultur Etxean.

Ekainak 20, igandea

Urretxuko Lurra Dantza Taldeak antolatutako XX. Dantzari Txiki Eguna. 12etan: Pagoetatik irtenda eta Areizaga-Kalebarren plazaraino kalejira. Arratsaldean, 5:30etan hasita, dantza emanaldia Gernikako Arbola plazan. (Euria izanez gero, frontoian egingo da).

Ekainak 21, astelehena

Secundino Esnaola Musika Eskolaren ikasturte amaierako kontzertua. Arratsaldeko 6:30etan Legazpi Dorretxean.

Ekainak 22, asteartea

Gontzal Mendibilek eta bere lan-taldeak idatzitako "Iparragirre, raíz y viento" liburuaren aurkezpena. Udaletxeko Areto Nagusian eguerdiko 12etan.

Ekainak 26, larunbata

Haurretzako eskulanak. Goizeko 11etatik 13etara Kultur Etxean.
Oskorri eta Urretxuko herria Iparragirreren bertsoak kantatzen. Gernikako Arbola plazan gaueko 10etan. (Informazio gehiago 18. eta 19. orrialdeetan).

Ekainak 27, igandea

Secundino Esnaola Musika Eskolako talde instrumentalaren kontzertua. Eguerdiko 1etan Euskadi enparantzan.
Goiargi eta Kimets Goiargiren kontzertu korala. Arratsaldeko 8etan Mertzedariatarren elizan.

Ekainak 28, astelehena

Mairi emakumeen elkarteak antolaturiko "Kafea eta berriketaldi literarioak". Arratsaldeko 4etan Kultur Etxean.

JAIAK

Hilaren 11, 12 eta 13an **San Antonio jaiak** Kalebarren-Areizaga enparantzan. (Egitaraua kontrazalean).

San Juanak

Ekainak 23, asteazkena
Zumarragako Euskadi enparantzan sua piztuko da eta Musika Bandak San Juan ereserkia joko du.
Gaueko 10:30etan, Gernikako Arbola plazan, San Juan sua eta ondoren trikitixa.
Ekainak 24, osteguna
San Juan eguneko erromeria Santa Barbarako kanpan (mahaien zozketarako izena Kultur Etxean eman daiteke, ekainaren 18ra bitartean).

Ekainak 27, igandea
Santa Isabel jaien barne, Haurren Eguna:
12etan: Alkatearen aginte uztea haur alkateari.
12:30: Haurrentzako jolasak.
17:30: Haur danborrada.
19:30: Haurrentzako berbena.

ERAKUSKETAK

Agurtzane Iturberen artelan erakusketa. Ekainaren 17tik 27ra bitartean Juan de Lizarazu erakusgelan.
Ekainaren 13ra bitartean, 1999ko Santa Isabel Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko antolatutako lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa Itarte Etxean.
Ekainaren 25etik uztailaren 4ra bitartean, Tony Pájaroren pintura erakusketa Itarte Etxean.

MASTER CADENA HEZKOR
Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!
Prezio eta modeloetan aukera aparta
Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 02 15
Faxa: 943 72 52 91
S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA

ALEK-BIROLAS
alejandro albisua
kirol gaiak
Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Oskorri eta Urretxuko herria

Iparragirreren abestiak kantatzen

Aurtengo San Juanetan ekintza guztiz berezia eta azpimarragarria izango dugu: Oskorri taldeak ekainaren 26an, larunbata, gaueko 10:30etan zuzeneko kon-tzertua grabatuko du konpondu berria den Gernikako Arbola enparantzan. Euria egiten badu, berriz, Urretxuko kiroldegian izango da. Bertan Natxo de Feliperen taldeak Urretxuko hainbat musikarirekin eta kantatuz parte hartu nahi duten herritar guztiekin Iparragirrek sortutako abestiak joko ditu. Ondoren, uztaila aldera, diska eta bideoa salgai jarriko dira eta ETBk ere kontzertua diferituan eskeiniko du. Urretxuko herriak bere seme ospetsuena izan den Iparragirreri omenaldi polita egiteko aukera izango du, beraz, hilaren 26ko kontzertuan abestuz. Ekitaldi honek ezagutzera ematea merezi duen prestaketa lan sakona izan du.

Urretxuko Udalak, herriko seme duen Jose Mari Iparragirreren pertsona eta hark egindako lana ezagutarazi eta goraipatu nahian, azken urte hauetan hainbat proiektu burutu ditu eta beste batzuei laguntza eman die. Kizkitza Ugarteburu herritarrak iaz urte erdiko ikerketa burutu zuen eta bertan bere biografia eta bibliografia bildu zituen, Iparragirreri buruz dauden eskutitz, argazki eta beste zertifikatuekin batera. Lan hau urretxuar kantariaren omenezko museoa eta beste zenbait egitasmo bultzatzeko erabili nahi da. Bestalde, udalak Iparragirreri buruzko liburua argitaratzeko laguntza eskeini dio Gontzal Mendibili. Liburuak 2 tomo ditu eta eta ekainaren 22an aurkeztuko da Urretxuko udaletxean.

Oskorrik Iparragirreren 6 bertso-sail musikatu ditu

Euskaldunon Egunkariak, Iparragirreren inguruko lan horren garrantziaz jabetuz, artikulu bat argitaratu zuen. Natxo de Felipek, Oskorri taldeko abeslariak, artikulua irakurri eta bertako udalarekin harremanetan jarri zen. Herritarrek Iparragirreren kantuak abestuz eta beraiek musika joz, Urretxun kontzertua egiteko proposamena luzatu zion udalari.

Oskorrik, euskal abeslari desberdinen kantu zahar edo tradizionalak kaleko jendearen eskuetara hurbildu eta hauen ahotsaz eta beraien musikaz lagundurik, kontzertuak eskeini eta grabatu izan ditu orain arte. Oraingo honetan, berriz, Jose Mari Iparragirreren kantu eta olerkiekin kutsu bereko kontzertua Urretxun eskeintzea du asmoa. Guztira 23 kantu abestuko dira eta hauetatik 6 musika ezagunik gabeko Iparragirreren bertso-sailak dira. Oskorri 6 kantu hauei musika jartzeaz arduratu da: "Jaungoikoa eta arbola", "Ez bedi galdu euskara", "Mendi maiteak", "Nafarroa alkarkidari", "Bilbao eta fueroak" eta "Mozkorraren kanta". 23 kantu hauek inoiz ezagutu ez den Iparragirreren errepertoriorik seguru eta zabalena osatzen dute.

Kantu hauek estiloaren arabera sailkatu dira eta formazio ezberdinetarako banatu dira. Horrela batzuk Urretxuko bandarekin jotzeko konpondu dira, beste batzuk orkestarekin, txistulariekin, dultzaineroekin, trikitilariekin...Urretxuko musikalari guztiek parte hartzea bilatu da eta herriko abesbatzari ere leku berezia gorde zaio. Hilaren 26ko ekitaldia primerakoa izan dadin maiatzaren 30ean Oskorrirekin entsaiua izan zuten denek Pagoeta Antzokian.

Urretxuko musikariek ere kontzertuan parte hartuko dute

Kontzertuan kantatu behar duten herritarrek abestu beharreko abestiak ezagutu eta ikas ditzaten; bi herriotako ikastetxeetan, Kultur Etxean, liburutegietan eta kultur elkarte ezberdinetan abestu beharreko kantak biltzen dituen liburuxka banatu da.

Baina ekainaren 26ko kontzertua ez da kontzertu arrunta eta aurrera ateratzeko egindako ikerketa lanak Iparragirreren bertso eta kantuei buruzko hainbat eztabaida behingoz argitu ditu. Horretarako Iparragirreri buruz argitaratu den guztia ondo aztertu da: garai

hartako aldizkari garrantzitsuenak arakatu dira (Euska Erria, Revista Euskara...), orduko kantutegi nagusienak ondo miatu dira (Santestebanenak, Manterolarenak...), Euskaltzaindiako Bibliotekan arakatu da eta bizirik dauden Iparragirreren obraren ikertzailerik nagusienei galdetu zaie. Hona hemen ikerketa lan honek eman dituen hainbat emaitza:

-"Ezkongaietan" eta "Beltzarana" kantu ezagunak ez dira, uste zen bezala Iparragirrerenak.
-"Ume eder bat" kantuaren testua Iparragirrerena bada ere, musika Santesteban maisuarena da, orain arte uste zenaren kontra.
-Euskal Herri osoan ezagutzen ez diren Iparragirreren hiru kanta topatu dira: "Xardina berriak", "Mairuren bandera" (Antzuolan soilik kantatzen dena) eta "Aloña Mendi (Oñatin soilik kantatua).
-Azken kantu honen bitartez frogatzen da, bertsolarien artean hain ospetsua den "Iparragirreren boza" izenez ezagutzen den doinua Iparragirrerena dela eta ez, askok esaten zuten moduan, Xenpelarrena.
-"Glu, glu, glu, glu" eta "Errukari" kantu famatuen lehenbiziko bertsoak Iparragirrerenak badira ere, gehienak Jose Artola bertsolari donostiarrarenak dira.


Iturria: Urretxuko Udal artxibategia.


Natxo de Felipe eta Urretxuko Musika Banda Pagoeta Antzokian

CHIARA
Etxerako lentzeria
Oparitarako gaiak
Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

ZAPATAK
elindari
0tik 40 zenbakiraino
Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak
Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga
Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu
Kale nagusia,5
☎ 73 04 19
Legazpi
* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU
OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

Zorionak Urola!

Denboraldi bikaina burutu ondoren, Urola Agip eskubaloi taldeak mailaz igotzea lortu du. Maiatzaren 29an partida erabakiorra jokatu zuten Amenabar Zarautz taldearen aurka. Igoera ligaxkako azken partidua zen eta Urola taldeak garaipena edo berdinketa behar zuen 2. Nazional mailara igotzeko. Zarautzek, berriz, garaipena behar zuen mailaz igotzeko. Bi taldeek igoera jokoan zutenez, sekulako garrantzia zuen partidak. Ispilla kiroldegia jendez gainezka zegoen; herritarrek egun honetarako kamisetak prestatu zituzten eta musika bandaren laguntza ere izan zuten. Zarautzetik ere jende ugari etorri zen bere taldea bultzatzera. Kiroldegia jendez gainezka zegoen eta giroa paregabea izan zen.



Zarauztarrak indartsuago hasi ziren eta ia partidu guztian zehar irabazten joan ziren, 6 goletako errenta ere izan zuten. Hala ere, Urolako jokalariek ez zuten fedea galdu eta borrokan jarraitu zuten. Askotan bihotzarekin buruarekin baino gehiago aritu baziren ere, Andueza atezainaren geldiketek taldea suspertu eta kemenez berdinketa lortu zuten bost minutu falta zirela. Azken bost minutuetan berdinketak bata bestearen atzetik etorri ziren. Markagailuan hogeitabosnakoa zela sartu ziren azken minutuan. Baloia zarauztarren esku zegoen arren, Urolak falten bidez euren erasoak gelditzea lortu zuen. Denbora beteta zela, Zarauztarrek azken falta jaurtitzeko aukera izan zuten. Ispilla kiroldegian tentsioa izugarria zen, ordurarteko iskanbila isiltasun bihurtu zen, eta zarauztarren jaurtiketak hesian jo zuenean eromena heldu zen.



Jokalariek ordurarteko tentsioa askatzeko aukera izan zuten eta lurrean botata zeudela besarkadak eta bizkarrekoak bata bestearen atzetik heldu ziren. Ondoren, Urola taldearen hori eta urdinaz apaindurik zegoen Andueza sendiaren furgonetan bi herriotan zehar garaipena ospatu zuten. Ondo merezitako parranda igandea egun argiz zela amaitu zen.

Hauek dira igoera lortu zen egunean parte hartu zuten jokalariak: Tomás Andueza, Iñaki Aranburu, Iñigo Cantero, Iban Cortés, Iñigo Garrido, Francisco Javier Godoy, Gorka Mendia, Miguel Angel Mendiola, Miguel Pérez, Rafa Ramos, Iker Soraluze eta Pablo Toral. **Zorionak Urola taldearen eskubaloi saila osatzen duzuen guztioi!**

Susana Fraile, eskubaloi liga txapelduna Elda taldearekin

Susana Fraileri txikitatik sortu zitzaion eskubaloiaren grina. Izan ere, bere ahizpa Itsaso ere eskubaloian jo eta su ibilitakoa da. Itsasok ohorezko mailan Hernani eta Arrate taldeekin jokatzea lortu zuen arren, bere ahizpa marka guztiak hausten ari da. Izan ere, aurten estatuko ohorezko liga irabazi du Alacanteko Elda taldearekin. Kopa txapelketako finala ere jokatu du Milar L'Elianna taldearen aurka, baina ez zuten irabaztea lortu. Herrian maila honetako txapelduna izanda ezin genuen bera zoriondu gabe utzi, ezta berarekin hitz egiteko aukera galtzen utzi, ez horixe!

Zer ibilbide jarraitu duzu orainarte eskubaloi munduan?

Ahizpa bezala Urolan hasi nintzen eta ondoren Arraten eta estatuko federazioaren proiektuan ere egon nintzen urte batzuetan. Duela bi urte Eldara etorri nintzen, ohorezko mailan jokatzera. Azken urteotan estatuko talde garrantzitsuena izan den Milar L'Elianna talde balentziarraren eskeintza ere izan nuen, baina bertan ez nuen hainbeste jokatuko eta Eldara etortzea erabaki nuen.

Nola joan da denboraldia?

Denboraldia ondo hasi nuen, baina abenduan belauneko lesio larria izan nuen eta honek geldiarazi ninduen. Dena den, orain osaturik nago eta datorren denboraldirako ilusio handia dut. Taldeari dagokionez, liga irabaztea oso zaila den arren, denboraldia ez da bereziki gogorra izan. Nesken eskubaloiko ohorezko mailan lau talde indartsu soilik gaude eta gure arteko partidak izaten dira gogorrenak. Ez genuen irabaztea espero, azkeneko urteotan beti L'Elianna taldeak irabazi baitu liga. Hala ere, aurten ezustekoa eman eta gu nagusitu gara. L'Eliannakoek ez dute galtzen jakin eta epaileen lanari egotzi diote errua.

Zer moduzko giroa bizi da Eldan?

Oso gustura daude lortu dugunarekin. Herriko kirol talde garrantzitsuena gara eta sekulako harrera egin ziguten titulua lortu genuenean. Herri guztia kalera atera zen guri ongietorria ematera.

Bestelakoan, zer moduz Eldan?

Zumarraga nire herria da eta faltan somatzen ditut gauza asko. Hala ere, Eldan oso gustura nago. Bertako jendeak oso harrera ona egin dit eta lagun asko egin ditut. Jendeak kalean gelditu eta lesioaz osatu naizen galdetzen didate...

Nolatan suertatu zitzaizun bertara joateko aukera?

Ni Arraten nengoen eta talde hau desagertu egin zen. Elda taldeko entrenatzaileak ezagutzen ninduen eta bertara joatea eskeini zidan. Nahiz eta gogorra den etxetik hain urrutira joatea, saiatu beharra nuen eskubaloi munduan aurrera egin nahi banuen. Hemengo eskubaloi taldeak estatuko indartsuenak baitira. Eldan igaro dudan denboran jokalari bezala dexente hobetu dudala nabaritu dut.



Herrian zuk lortutakoa oharkabean pasa dela iruditzen zait.

Beno, nesken kirolaren egoeraren ondorioa dela uste dut. Komunikabideetan ez zaio mutilen kirolari bezainbeste garrantzi ematen. Gainera eskubaloiak ez du beste kirol batzuen indarra, nahiz eta Iñaki Urdangarinen kontuak mesede pixkat egin dion. Gure taldean ere, jokalari guztiak ez gara profesionalak eta horretan zortea dut, soldata truke jokatzen ari naizenetakoa bainaiz.

Liga irabazi ondoren, erronka berririk ba al duzu?

Beti dago erronka berriak aurkitu beharra, bestela utzi egingo nuke. Eskubaloian ahal dudan guztia lortu arte lanean jarraituko dut. Ziur naiz gainera lortuko dudala, izan ere konfidantzarik gabe nekez lor daiteke norberak bere buruari eskatzen diona. Hurrengo erronka estatuko selekzioan lekua lortzea da. Lehenago ere konbokatua izan naiz, baina lesioa dela eta, orain nire lekua berreskuratu beharra dut. Dena den, jada ezagutzen naute eta uste dut niganako konfidantza dutela. Bestalde, lesioa dela eta, ezin izan dut Euskadiko selekzioak aurten jokatu dituen partiduetan parte hartu. Ea datorren urtean aukera dudan.

Datorren denboraldian Europako taldekako txapelketa nagusia ere jokatuko duzue...

Bai, aurten ere EHF txapelketa jokatu dugu (futbolean UEFA dena) eta final laurdenetara heltzea lortu dugu. Ea Europako Kopan ere kanporaketa batzuk pasatu eta beste leku batzuk eta euren eskubaloi prestaketa ezagutzeko aukera dugun.
Izan ere, nesken eskubaloian herrialde indartsuenak Europa erdialde eta iparraldekoak dira eta guretzat oso garrantzitsua da talde horien aurka jokatzeko aukera izatea.

Estatutik kanpora jokatzeko aukera suertatuko balitzaizu, joango al zinateke?

Iaz EHF txapelketa irabazi zuen talde hungariarrak bertara jokatzera joateko eskeintza egin zidan, baina oraindik 20 urte besterik ez ditut eta ez nuen hain urrutira joateko kemenik. Dena den, etorkizunean eskubaloi munduan aurrera egiteko urrutira joan beharra badut, horretarako prest naiz.

Jonmikel Intsausti Zintzo-Mintzoko informatikaria

-Zer izan nahi zenuen umetan?
Dirudienez, 4 bat urterekin arkitektoa izan nahi nuen.
-Orain lanbidez aldatzekotan?
Artzaina.
-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?
Aldapan gora kamiseta blai egini eta paisaiaz gozatu.
-Bizitzeko toki bat?
Errioxan ez naiz gaizki bizi eta arabarrean oso gustura sentitzen naiz.
-PC ala Macintosh?
PC, baina Macintoshak ere ondo daude.
-Noiz gustatzen zaizu txipaz aldatzea?
Ahal eta nahi dudanean.
-Memoria ona al duzu?
Giga pilo bat dauzkat, baina bitak dantzan ibiltzen zaizkit.
-Aurten birusik izan al duzu?
Griperik ez dut izan eta ordenadorean ere ez.
-Datuak prozesatzeko ahalmenik ba al duzu?
IM1967viii prozesadore azkartxoa dut.
-Internet bidez ligatzen al da?
Nahi izanez gero bai.
-Nori bidaliko zenioke E-mail bat?
Akaso bidali izan diot...
-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?
Inor ospetsurik ez, bada munduan gizon-emakume eze zagun asko bere bizitza eta etxea ezezagunari irekitzen diona.
-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?
Gustura egongo nintzatekeen edonorekin.
-Ilehoriak ala beltzaranak?
Beltzaranak.
-Egindako azken oparia?
Lore sorta bat.
-Eta jasotakoa?
Liburu bat. "El callejón de los milagros", Naguib Mahfuzena; lagun jator batek oparitutakoa.
-Data bat?
1997ko martxoaren 17a.
-Neska izen bat?
Eunate.
-Zein egunkari irakurtzen duzu?
Euskaldunon Egunkaria eta Gara. Ahal dudanean DV ere bai. Eta internet bitartez, aurrekoak aparte El País, ABC, El Mundo...
-Gustuko telebista saioa?
Elene Lizarraldek eta Joxemari Goikoetxeak zuzentzen zuten "Terminus" saioa.
-Bereziki gorroto duzuna?
Futbola, futbola eta futbola.
-Liburu bat.
Manu Leguinecheren "El camino más corto".
-Filme bat.
"Gizon lasaia" eta "Cinema Paradiso".
-Abesti bat
Jon Maiaren letra duen Zaldiboboren "Ragga".
-Soinu bat.
Txori baten txio-txioa, kaiolatik kanpo, libre badago, noski.
-Usain bat.
Orain esan nahi ez dudan kolonia baten usaina. Kolonia asko agian.
-Ukitzeko...
Ile sorta luze bat.
-Janari bat.
Amak prestatzen dituen txipiroiak.
-Ura ala...
Arabar Errioxako erreserba on bat.

URRETXU
OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA
Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea
Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZITATEA
☎ 943 72 57 75

URRETXU

haize berriak

ZUMARRAGA

haize berriak

bozkatu

Euskal Herritarrok

EH

Euskal Herritarrok

Kalebarren-Areizagako tabernariok San Antonio jai zoriontsuak opa dizkizuegu

BERIT
URRETXU

VZKVDVN

kroisantegia
Soraluze Kalea,9 ☎ 943 72 61 93

ALASKA

TABERNA
Kalebarren, 1 ☎943 72 56 50

HUTS

TABERNA

TXORI
GAU

☎ 943 72 40 52 ZUMARRAGA

AITUBE
Goizeko 7etatik aurrera zabalik
Gosarietan berezitasuna
Areizaga enparantza, Urretxu ☎943 72 19 66

Politena
taberna

EGITARAUA

OSTEGUNA 10

19:30etan: Auzoko tabernek eskainitako txistorra-jana. Ondoren, "Secundino Esnaola" Musika eskolako trikitilariak.

OSTIRALA 11

19:00etan: Aldiri K. E.ko buruhuandi eta erraldoiak, Urretxuko Iratzarri dultzaina-joleak lagundurik.
19:30etan: Donostiako Udaleko Musika eta Dantza Eskolako Gitarra orkestraren kontzertua.
23:00etan: Dantzaldia, Kiñu taldea soinua jotzen dela.

LARUNBATA 12

12:30etan: "Secundino Esnaola" musika-eskolako trikitilariek eskainitako emanaldia.
13:00etan: Eguerdiko poteoa, txistulari taldea soinua jotzen dela.
18:30etan: Bosgarren Toka txapelketa. Izena ematea: 300pzta.
19:30etan: Lurra dantza taldearen dantzaldia.
23:00etan: Dantzaldia Continente orkestrak soinua jota.

IGANDEA 13

10:00etan: Goiz-eresia "Antziñako Ama" txistulari taldearen jota.
11:30etan: Pintura txapelketa.
12:00etan: Irrintzi dantza taldearen dantzaldia.
12:30etan: San Antonioren omenez eta auzoko hildakoen aldeko Meza, Andre Mari Jasokundekoaren parroki elizan.
13:00etan: Zumarragako Musika Bandaren kalejira.
13:30etan: Bertsolarien saioa.
17:00etan: Haurrentzako jokoak.
20:00etan: Habanerak eta pupurria Iñaki Basabe eta Jesus Mari Nuñezen eskutik.